IRAGARPENA, Lan Zuzendariarena, Bilbao Hoteles, S.A. enpresako Confederación General del Trabajo (C.G.T.) delakoaren Sekzio Sindikaleko Estatutuei dagozkien agiriak depositatu direla argitaratzeko dena. 4807

EDIKTUA, Enplegu Zuzendariarena, aipatzen den espedienteari buruzkoa. 4807

**ZUMAIAKO UDALA**

EDIKTUA, Udal hilerrian abandonaturiko panteoi erlazioari buruzkoa. 4808

ANUNCIO del Director de Trabajo, por el que se hace público que ha sido depositada la documentación relativa a los Estatutos de la Sección Sindical de la Confederación General del Trabajo (C.G.T.) en la empresa Bilbao Hoteles, S.A.» 4807

EDICTO del Director de Empleo sobre el expediente que a continuación se relaciona. 4807

**AYUNTAMIENTO DE ZUMAIA**

EDICTO relativo a la relación de panteones abandonados en el Cementerio Municipal. 4808

# Euskal Autonomi Elkarteko Xedapen Orokorrak

## NEKAZARITZA ETA ARRANTZA SAILA

### 1686

AGINDUA, 1993ko maiatzaren 5ekoa, Nekazaritza eta Arrantza Sailburuarena, Euskal Herriko Autonomi Elkartean abereak identifikatzeko metodo elektronikoen erabilera arautzen duena.

Kontseiluaren 1992ko azaroaren 27ko 92/102/EEE Zuzentarauak abereen identifikazio eta erregistraori buruzko arauak ezartzen ditu. 10. atalak, hain zuzen ere, identifikaziorako sistema elektroniko bat sortzea aurrikusten du.

Gaur egun abereak identifikatzeko dauden metodo elektroniko ezberdinak era beretsuan erabiltzera jotzen duten oinarrizko irizpideak ezarri ahal izateko xedeaz, beharrezkotzat hartu da garatuko den sistematika orokorra arautzea, Euskal Herriko Autonomi Elkartean abereen Identifikazio Elektronikoaren Erregistro Orokorra sortuaz.

Euskal Herriko Autonomi Elkarteko arauak adierazi diren Europako Elkarteko arauei egokitu beharra kontutan hartuta eta, bestetik, Autonomi Estatutuaren 10.9. atalak Euskal Herriko Autonomi Elkarteari iratxiki zion eskurantza eta 27/1983 Legeak abereen identifikazioaren arloan lurralde historikoei eman zizkien eskurantzak gogoan izanik, Estatuko administrazio zentralarekin koordinatzeko bideak ezarri beharraz jabetuta, bakoitzari dagozkion eskumenak behar bezala erabiltzeko, eta Europako Elkarteko arautegien zuzeneko aplikagarritasunaren kaltetan jo gabe.

Hori dela bide, hauxe

# Disposiciones Generales del País Vasco

## DEPARTAMENTO DE AGRICULTURA Y PESCA

### 1686

ORDEN de 5 de mayo de 1993, del Consejero de Agricultura y Pesca, por la que se regula la utilización de métodos electrónicos de identificación animal en la Comunidad Autónoma del País Vasco.

La Directiva 92/102/CEE del Consejo de 27 de noviembre de 1992 establece una regulación referente a la identificación y al registro de animales. En especial, su artículo 10 prevé la existencia de un sistema electrónico de identificación.

Al objeto de poder establecer los criterios básicos tendentes a la utilización uniforme de los diferentes métodos electrónicos de identificación animal existentes actualmente, se considera necesario proceder a la regulación de la sistemática general a desarrollar, mediante la creación del Registro General de Identificación Electrónica de animales en la Comunidad Autónoma del País Vasco.

Teniendo en cuenta, de un lado, la necesidad de adaptar la normativa de la Comunidad Autónoma del País Vasco a la referida reglamentación comunitaria y de otro, la competencia atribuida a la Comunidad Autónoma del País Vasco por el artículo 10.9 del Estatuto de Autonomía y las competencias atribuidas a los Territorios Históricos por Ley 27/1983 en materia de identificación animal, así como la necesidad de establecer los mecanismos de coordinación con la Administración Central del Estado, en aras a un correcto ejercicio de las competencias respectivas, todo ello sin perjuicio de la aplicabilidad directa de la reglamentación comunitaria.

En su virtud,

XEDATU DUT:

*1. atala.*– Euskal Herriko Autonomi Elkarteko abere guztiei, espeziea edozein delarik ere, identifikatzeko metodo elektronikoak aplikatuko zaizkie; horrez gain, Foru Aldundietako Nekazaritza Sailetako Abeltzantza Zerbitzuek, zeinek bere lurralde historikoan, sortu eta kudeatuko duten Lurraldeko Erregistroan zentsatu eta erregistratuko dira abere guztiak.

*2. atala.*– Identifikazioa letrak eta zenbakiak izango dituen kode baten bidez egingo da; kode horrek, abere bakoitzarentzat bakarra izan dadin behar diren beste digitu izango ditu, eta ezin izango dira bi abere edo gehiago egon identifikazio kode berarekin.

Hortaz, kodea emateko eta abere bakoitzari esleitzeko, honako agindu honen 1. atalean aipatu den Lurraldeko Erregistroaren arabera ihardungo da.

*3. atala.*– 1. Aberea identifikatzerakoan, agindu honen 1. atalean ezarri den Lurraldeko Erregistrora igorri beharko den oinarrizko informazioa ondoko hau izango da:

a) abereari buruzkoa:
– esleitu eta jarritako identifikazio kodea;
– espeziea;
– arraza;
– sexua;
– ilearen kolorea;
– jaioteguna;
– ohizko bizilekua;
– identifikatzeko erabili diren bestelako metodoak;

b) aberearen jabeari buruzkoa:
– izen-deiturak;
– ohizko egoitza;
– telefonoa;
– Nortasun Agiri Nazionala;

c) beste datu batzuk:
– aberearen identifikazio ofiziala burutzen duen albaitari ofizialaren identifikazio datuak;
– identifikazio data.

2. Informazio hori, Foru Aldundietako Abeltzantza Zerbitzuek izendatuko duten albaitari ofizialak igorriko du.

*4. atala.*– 1. Foru Aldundietako Nekazaritza Sail bakoitzeko Lurraldeko Erregistroan bildutako datuek batabestearekin lotuta egon beharko dute, informazio guzti hori Euskal Herriko Autonomi Elkarteko Abereen Identifikazio Elektronikoaren Erregistro Orokorraren osagai izan dadin.

2. Erregistro orokor hori, beste autonomi elkarte batzuetan edo EEEko beste herrialde batzuetan dauden eta antzerako ezaugarriak eta helburu berberak dituzten beste erregistro batzuekin lotuta egon daiteke.

*5. atala.*– Abereen identifikazio elektronikorako egitarauaren garapena Euskal Herriko Autonomi Elkartean errazteko xedeaz, Jarraipen Batzordea eratuko da, ondoko hauek osatuko dutena:

DISPONGO:

*Artículo 1.*– La totalidad de animales de la Comunidad Autónoma del País Vasco que, independientemente de su especie, sean sometidos a la aplicación de métodos electrónicos de identificación animal, deberán ser censados y registrados en el Registro Territorial creado y gestionado a tal efecto por los Servicios de Ganadería de los Departamentos de Agricultura de las Diputaciones Forales, en cada uno de sus respectivos Territorios Históricos.

*Artículo 2.*– La identificación estará constituida por un código alfanúmerico de un número de dígitos tal que aquel sea único para cada animal, sin que puedan existir dos o más animales con el mismo código de identificación.

Para ello, la emisión del código y la asignación del mismo a cada animal se efectuará a partir del Registro Territorial mencionado en el artículo 1.° de la presente Orden.

*Artículo 3.*– 1. En el momento de proceder a la identificación del animal, la información básica objeto de remisión al Registro Territorial establecido en el artículo 1.° de la presente Orden, será la siguiente:

a) En relación al animal:
– Código identificador asignado e implantado
– Especie
– Raza
– Sexo
– Capa
– Fecha de nacimiento
– Domicilio habitual
– Otros métodos identificadores utilizados

b) En relación al propietario del animal
– Nombre y apellidos
– Domicilio habitual
– Teléfono
– Documento Nacional de Identidad

c) Otros datos:
– Datos identificativos del veterinario oficial que proceda a la identificación oficial del animal
– Fecha de identificación

2. Esta información será remitida por el veterinario oficial designado al efecto por los Servicios de Ganadería de las Diputaciones Forales.

*Artículo 4.*– 1. La información almacenada en el Registro Territorial de cada uno de los Departamentos de Agricultura de las Diputaciones Forales, deberá estar intercomunicada entre sí de tal forma que dicha información forme parte del Registro General de Identificación Electrónica de Animales de la Comunidad Autónoma del País Vasco.

2. Este Registro General podrá estar intercomunicado con otros de similares características y con los mismos fines, implantados en otras Comunidades Autónomas o en otros países miembros de la CEE.

*Artículo 5.*– Al objeto de facilitar el desarrollo del programa de identificación electrónica de animales en la Comunidad Autónoma del País Vasco, se crea una Comisión de Seguimiento integrada por:

a) Eusko Jaurlaritzako Nekazaritza eta Arrantza Saileko ordezkari bat, eta

b) Foru Aldundietako Nekazaritza Sailetako ordezkari bana.

*6. atala.*– Aipatu den batzordeak ondoko zeregin hauek izango ditu:

a) identifikaziorako egitarau ezberdinak garatzeko aholkamendu orokorra;

b) Euskal Herriko Autonomi Elkartean abereen identifikazio elektronikorako erabiltzen diren metodoen homologazioa;

c) burutzen diren identifikazio kanpaina ezberdinen oinarrizko antolamendua.

AZKEN XEDAPENAK

*Lehena.*– Ahalmena ematen zaio Nekazaritza eta Landen Garapenerako Zuzendariari honako agindu hau garatzeko behar diren erabakiak hartzeko, baita agindu honetan xedatutakoa aplikatu eta betetzeko behar diren xedapenak emateko ere.

*Bigarrena.*– Honako xedapen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunean jarriko da indarrean.

Vitoria-Gasteiz, 1993ko maiatzak 5.

Nekazaritza eta Arrantza Sailburua,
JOSE MANUEL GOIKOETXEA ASKORBE.

a) Un representante del Departamento de Agricultura y Pesca del Gobierno Vasco, y

b) Un representante de cada uno de los Departamentos de Agricultura de las Diputaciones Forales.

*Artículo 6.*– Las funciones de la citada Comisión serán las siguientes:

a) Asesoramiento general para el desarrollo de los diferentes programas de identificación.

b) Homologación de los métodos utilizados para la identificación electrónica de animales a nivel de la Comunidad Autónoma del País Vasco.

c) Organización básica de las diferentes campañas de identificación desarrolladas.

DISPOSICIONES FINALES

*Primera.*– Se faculta al Director de Agricultura y Desarrollo Rural para dictar las resoluciones de desarrollo de la presente Orden, así como disposiciones necesarias para la aplicación y cumplimiento de lo dispuesto en la misma.

*Segunda.*– La presente disposición entrará en vigor el día siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

En Vitoria-Gasteiz, a 5 de mayo de 1993.

El Consejero de Agricultura y Pesca,
JOSE MANUEL GOIKOETXEA ASKORBE.

# Agintariak eta Langilegoa

## Izendapenak, Egoerak eta Gorabeherak

### EUSKAL HERRIKO UNIBERTSITATEA

**1687**

ERABAKIA, 1993ko apirilaren 19koa, Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitateko Errektoregoarena, Ekonomi eta Enpresa-Zientzien Fakultateko Dekano jaunaren Idazkari-lanpostuaren horniketa onartzen duena.

U.P.V.-E.H.U.ko Errektoregoak, Rosa Ausin Torre andrearen aldeko izendapen-proposamena ikusirik, abuztuaren 25eko 11/1983 Legearen 3. eta 18. artikuluek, abenduaren 9ko 2627/1985 Errege Dekretuak, U.P.V.-E.H.U.ko Estatutuetako 71,75 artikuluak eta indarrean dauden gainerako lege-xedapenek emandako atribuzioak erabiliz, hala nola Euskal Funtzio Publikoa arautzezko legeko uztailaren 6ko 6/1989 legearen 46. artikuluan zehazki aurrikusitakoarekin bat etorriz, 13.130.012 N.A.N. zk. eta T01EU074001186 Erregistro Pertsonalaren zk. dituen Rosa Ausin Torre andrea

# Autoridades y Personal

## Nombramientos, Situaciones e Incidencias

### UNIVERSIDAD DEL PAIS VASCO

**1687**

RESOLUCION de 19 de abril de 1993, del Rectorado de la Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatea, en cuya virtud se acuerda la provisión del puesto de trabajo de Secretaria del Ilmo. Sr. Decano de la Facultad de Ciencias Económicas y Empresariales de Bilbao.

El Rectorado de la U.P.V./E.H.U., vista la propuesta de nombramiento en favor de Dña. Rosa Ausin Torre, en uso de las atribuciones conferidas en los Artículos 3 y 18 de la Ley 11/1983 de 25 de agosto, Real Decreto 2627/1985 de 9 de diciembre, Artículo 71,75 de los Estatutos de la U.P.V./E.H.U. y de conformidad con lo expresamente previsto en el Artículo 46 de la Ley 6/1989 de 6 de julio, de la Función Pública Vasca y demás disposiciones legales vigentes ha resuelto nombrar y nombra Secretaria del Ilmo. Sr. Decano de la Facultad de Ciencias Económicas y Empresariales a Dña.